

Arrasaten, 1975eko Abenduaren 9an.

XABIER RETEGI, ARRASATEKO TEKNIK IKASTEGIAREN ZUZENDARI JAUNARI,

Agur t'erdi!

Guk, Teknik Ikastegia izenpentzen dugun ikasleok, hau adieraz-  
tera eta eskatzera gatzokizu :

- Kontuan izanik Ikastegiko ikasle gehienak euskaldunak direla,  
alegia, euskara dakitenak, eta gainerakoak ere ia den denak, eus-  
kara ez badakite ere Euskal-Herrikoak sortzez edo bizitzez.

- Kontuan izanik, Teknik Ikastegi hau Euskal-Herriaren bihotzean  
dagoela, Leintz eskualdea, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiak bat egi-  
ten duten, alderdian, beraz, euskara bizirik dagoen eskualde ba-  
tetan.

-Kontuan izanik Ikastegi horretatik ateratzen diren ikasle gehie-  
nak, gero Euskal-Herriko lantegietan lan egingo dutela, eta puntu  
honetan ere beste mila arrazoiez gainera, interesgarria dela euskara  
ongi menderatzea.

-Kontuan izanik Estatuak onhartu bide dituela dekretu bi (1433/1975  
eta 2929/1975) aukera gehiago ematen dutela euskara, galegoa eta  
Katalana irakasteko eta legez erabiltzeko.

- Kontuan ditugu Arrasateko Teknik Ikastegi honetan frantzes eta  
ingelesezko irakaskintza edatua dela, Ikastegiko programaketa  
ofizialean.

- Kontuan izanik Ikastegi honek elebitasuna praktikak jartzea nahi  
duela, beharrezko da beraz, horretarako prestatuak egotea aurretiaz,  
maixuak aurrenengo direla, bestela kontraesan bat baidirudi.


-Era berean, orainarte "Kolegio Biteri" delakoan euskararazko gau  
eskolak ematen direla kontuan izanik, eta bertara baita ere Teknik  
Ikastegiko ikasleak (Kolegioko ez direnak alegia) etortzen direla.


Eskabide hauek egitera gatoz:


- Euskara Teknik Ikastegiko programaketa barnean sartzea, eusara ez dakitenentzat.
- Euskal alfabetatzea, era berean, programaketa barnean sartzea, euskara hitz egiten dakitenentzat.
- Beste hizkuntzetan ere egiten den bezala, eta arrazoi gehiagorekin hemengo hizkuntzarekin, ikastaro osagarri batzuek sartzea : literatur, teknik terminologi, eta kultur gaietakoak hain zuzen ere.


Eskabide hauek aztertu eta onhartuko dituzulakoan, agurtzen zaitu,


KOLEGIOKO EUSKAL KULTUR TALDEAK


 Colegio  
Menor  
Viteri  
MONDRAGON (Gulizosa)


 David Etxezaga


 J. J. Oromarzu


 J. J. Oromarzu

 J. J. Oromarzu

 J. J. Oromarzu

 J. J. Oromarzu

 J. J. Oromarzu

 J. J. Oromarzu